AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5995

1743/2011 EBAZPENA, azaroaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Aurelio Latorre García jauna Arabako Eskualdeko zuzendari mediko kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 15eko 1892/1998 Ebazpenaren bidez, Aurelio Latorre García jauna Arabako Eskualdeko zuzendari mediko izendatua izan zen.

Aztertuta geratu dira ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak. Ondoren, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Aurelio Latorre García jauna Arabako Eskualdeko zuzendari mediko kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko azaroaren 16tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Arabako Eskualdeari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.